

Prest!



BERBETAN: BEÑAT LARRINAGA ARRAUNLARI OHIA ETA DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO IKERLARIA

ERREPORTAJEA: AUZO-LANA OINARRI, KOMUNITATEA HELBURU **BARKUA: DEUSTUKO INAUTERIAK GALAZ**

50-251-252-253-254



Sustatzailea




Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak
- Helbidea
- Telefonoa
- E-posta
- Kontu zenbakia (Iban)

bilbokoaldizkariak@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

aurkibidea

	Itsaso Larramendi Elexgaray - Jon Zubietta		Iritzia	4
	Olatz Alonso		Gureak kanpoan	5
e	<p>erreportajea Auzo-lana oinarri, Komunitatea helburu</p> <p><i>Ibarrekolandako Kristau Komunitatea auzoan elkarlana sustatzen duten proiektu anitzen gotorlekua da; ia 70 urteko ibilbidean Ibarrekolandako eragile sozial garrantzitsuenetakoa izatera iritsi dena. Bada, hilabete honetan bere historia eta egun bere abaroan garatzen diren proiektuak hurbilgotik ezagutu nahi izan ditugu.</i></p>	6		
	Ibarrekolanda BHI		Eskolak	10
	Luchana baporettxoa Elorrieta parean (1873)		Behin batean	12
	Deustun Osasungintzaren alde!	a	Artikulua	14
b	<p>berbetan BEÑAT LARRINAGArekin</p> <p><i>Deusturekin eta arraunarekin zeharo lotuta dago Beñat Larrinagaren bizitza. Gaztetan Deustuko Arraun Elkartearen sartu eta gero, orotara hamarkada eta erdi baino gehiagoko ibilbideari amaiera eman zion 2019an. Gaur egun, kirolarekiko sentitzen duen interesari jarraiki, emakumezkoen arrauna aztertzea xede duen doktoretza tesia egiten ari da Deustuko Unibertsitatean.</i></p>	16		
	Euskalduna Zubia (1995)		Irudiak berbetan	21
<p>EUSKARA Euskara- islandiera, euskal "balezaleen" ondarea</p> <p>JAI HERRIKOIAK Anexioaren mendeurrenean, Deustuko inauteriak galaz</p> <p>PINTXODROMOA Brioche Torrada</p> <p>KULTUR TXOTX Danel Lauzirika Erkiaga, Ane Pérez González eta Izadi Zuberogoitia Gutierrez</p>		24		



**barkua
bete
herba**

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Axular Arostegi
Erredakzioa: Xabier Badiola, Asier Cobos, Nerea Cubillo, Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hektor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Maider Zalbidea, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurrega
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inaziko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inaziko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Axular Arostegi
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01



Oheak

1959an eraiki zuen Hugh Hefner-ek imaginario kolektiboan ikono erotikotzat dugun ohe borobil mitikoa. Ohe hori baina, ez zen Hefner-en sexu-abenturen kokaleku soila, inflexio puntu izan baitzen ohearen funtzionalitate berriak irudikatzen orduan. Preciadok dioenez, Playboy ohea etengabe lan egiteko aukera ematen zuen tresna mediatikoa zen, inoiz lorik egiten ez zuen ohea, garai hartan eskura zeuden telekomunikazio teknika guztiak bere gain hartzen zituen super-egitura. Ordura arte pribatuzat eta deskantsurako hartzen zen elementua publiko eta produktibo bilakatu zuen Hefner-ek, munduari bere lanleku nagusi bezala azalduz.

Sei hamarkada geroago, ohe hori bera ikusi dezakegu Rosaliaren *Tuya* kantuaren bideoklipean. Alba Lafargaren




Itsaso Larramendi Elexgaray
Hiriaz eta beste

ustez, ez da kasualitatea bere bizitzaren esfera guztiak lanari eskaini dizkion, eta bere bizitza pribatua bere figura publikoaren eraikuntzarako baliatu duen artistak halako sinboloa berreskuratzea. Lana-aisia eta pribatu-publiko binomioek zentzua galdu duten garaiotan, informazioa eta plazera produktibo bilakatu dira ohetik egiten dugun *scroll* infinituaren forman. Eta horren adierazgarri da azkenaldian TikTok-en hedatu den *bed rotting* tendentzia. Itxuraz, eguneroko frenetikoaren aurrean ohean ordu luzez egon eta deskantsu hartzera gonbidatzen gaitu joera horrek, baina oraingoan ere, atsedena sare sozialek mediatizatua da, eta enkoadraketa landuek estetizatua.

Gure oheak karratuak diren arren, badirudi ez direla Playboy ohe borobilaren horren ezberdinak.



Jon Zubieta
Sanitarra



Gune bakarra, hamaika abagune

Gure auzoetan kulturarekin, aisialdiarekin, politikarekin edo beste edozein arlorekin erlazionatutako jarduera era independentean aurrera eramateko grina duen pertsona orok ongi daki espazio egoki bat edukitzeak sor ditzakeen aukerak. Beharbada argiena inolako baldintzarik gabe jardun ahal izatea da, baina askotan ezinbestekoak diren azpiegitura eta egonkortasuna lortu ahal izatea are garrantzitsuagoa izaten da.

Tamalez, gaur egun interes ekonomiko hutsetatik aldentzen diren proiektu guztiek izugarritzko zailtasunei aurre egin behar diete espazioari dagokionez, eta, horrenbestez, euren eraginkortasuna eta potentzialitatea izugarri murriztua ikusten dute. Izan ere, nahitaez, sarritan guztiz baldintzatutako

jarduera eramaten dute aurrera, izan eskakizun ekonomiko itogarriengatik edo bete beharreko araudi zorrotzengatik.

Hori guztia kontuan hartuta ezinbestekoa dugu logika horretatik at existitu daitezkeen espazioak sustatzea eta defendatzea, eta bide horretan berri pozgarria da azken asteetan Deustun irekitako Aresti Zentro Sozialistaren aurkezpena, auzoan proiektu ugari aurrera eraman ahal izateko aukera emango duena.

Opa diezaiogun ibilbide luzea auzoan hasi berri den proiektu honi eta espero dezagun etorkizunean ospatuko ditugun proiektuen artean hau lehenengo urratsa baino ez izatea.



Olatz Alonso

Jatorria: Ibarrekolanda

Bizitokia: Madril

Lanbidea: Ikerlaria



Zerk eraman zintuen Madrilera?

Bizitzak. Euskal Herria maite dut, baina esperientzia eta erronka berriak behar nituen, bai profesionalak eta bai pertsonalak. Horretaz jabetu nintzenez, lana bilatu, etxea alokatu, maleta egin, nire bi katutxoak hartu eta abentura hau hasi genuen.

Dagoeneko pare bat urte daramatzazu bertan. Esango zenuke bertako bizimodura ohitu zarela?

Maiatzean bi urte beteko dira Madrilera mugitu nintzenetik. Hemengo bizimodura ohitzea oso erraza da, lehen hilabeteetik etxean bezala sentitzen zara. Plan ugari daude, gau eta egun. Jendea oso anitza denez, oso azkar aurkitzen duzu zure lekua hemen, gehienok egoera berdinean gaudelako, gainera.

Bilboaldea oso txikia da Madril bezalako hiri batekin alderatuta. Zeintzuk dira somatu dituzun diferentzia handienak?

Plan kultural amaigabeez gain, lan aukera asko daude. Hori bai, zorionekoa zara zure lana etxetik ordu erdi baino gutxiagora

badago. Bestalde, oso ohikoa da zure lankide eta lagunak inguruko hainbat tokitakoak izatea: Andaluzia, Galizia, Murtzia, Gaztela-Mantxa... Madrildarrak desagertzeko arriskuan daudela esaten da hemen. Kulturartekotasun honek giro izugarria ematen dio hiriri. Adinari lotutako inposizio sozialik ez dagoela ere nabarmenduko nuke. Berdin da zenbat urte dituzun, beti izan zaitezke gazte.

Inauteri garaiak pasa berri diren honetan, nola daramazu egun berezietan familiarekin eta San Inazioko lagunekin ez egotearena?

Sarritan bueltatzen naiz etxera, gutxi gorabehera hilean behin. Data garrantzitsuetan itzultzen saiatzen naiz, urtebetetzeetan edo auzoko jaietan, esaterako. Madril ez dago urrun, agenda antolatuta mantentzen dut ezer ez galtzeko. Baina ezinezkoa da gauza guztietara iristea, eta ezin dut ukatu honek pena handia ematen didala.

Zer ari zara faltan botatzen gehienbat?

Familia eta lagunez gain, poteoak, pintxoak eta txosnak

botatzen ditut faltan. Madrileko kaleetan giro handia dago, astelehenetik igandera, baina tabernetako terrazan eserita egon behar duzu, eta patata minak dituzu jateko ia aukera bakarra. Euskal Herriko kaleetako giroa, kultura eta gastronomia konparazina da.

Azkenaldian mobilizazio ugari izan dira Madril en egungo Espainiako Estatu gobernuaren erabakiak direla eta. Kanean aparteko tentsiorik igeri duzu horren harira?

Zarata mediatiko hutsa.

Epe luzerako geratzeko asmorik duzu?

Momentuz bai. Karlos III.a Osasun Institutuan nabil lanean (Instituto de Salud Carlos III edo ISCIII), Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren mendeko erakundea. Aukera hori Madril en bakarrik dago, eta ahalik eta gehien aprobetxatu nahi dut.

Hala ere, Bizkaian ikerketa biomedikoan aritzeko aukerak ere daudedenez, beti izango dut itzultzeko aukera.



Etorkizuna Scout Taldearen ekitaldietako bat.

AUZO-LANA OINARRI, KOMUNITATEA HELBURU

Ibarrekolandako Kristau Komunitatea auzoan elkarlana sustatzen duten proiektu anitzen gotorlekua da; ia 70 urteko ibilbidean Ibarrekolandako eragile sozial garrantzitsuenetakoa izatera iritsi dena. Bada, hilabete honetan bere historia eta egun bere abaroan garatzen diren proiektuak hurbilagozik ezagutu nahi izan ditugu.

Testua: Axular Arostegi

Argazkiak: Ibarrekolandako Kristau Komunitatea

Izena ematen dion auzoaren bihotz-bihotzean kokatuta, gaur egun Ibarrekolanda BHI eraikinaren albo batean aurki dezakegu Ibarrekolandako Kristau Komunitatearen egoitza. Bere izena eta eginkizuna ulertzeko, ezinbestekoa zaigu begirada iraganera botatzea; izan ere, kanpotik ikusita begibistakoa da eraikinak berebiziko pisua izan duela auzoan, 2018ra arte Ibarrekolandako Parrokia izan baitzen.

Gauzak horrela, ezin da Komunitateaz hitz egin ikastetxea aipatu gabe. Alabaina, 1958an ikastetxea bukatu zutenean, kapera modura erabilia izan zen. Geroago, 1969ko urtarrilaren

17an ekin zion bere ibilbideari Ibarrekolandako Parrokia bezala. Harrezkero, auzoa egiteko hamaika jarduera eta ekimenentzako babesa izan da. 2018an, ordea, ia 50 urteko ibilbidearen ostean, Kristau Komunitate izatera pasa zen. "Apezpikutzak, apaizen falta eta ahulezia zela eta, parrokia kentzea erabaki zuen. Horren orde, gure proiektuarekin beste modu batean jarraitzeko aukera eman zigun" gogoan du Andoni Salvador Komunitateko buruak.

Gaur egun zerbitzu parrokiarik eskaintzen ez duten arren, eragileak auzoan duen presentzia berdina izaten jarraitzen du. Dena den, au-



zoan komunitate sentimendu bat sortzeko egitasmoak gain, parrokia zenaren garaiko elementuak izaten segitzen dute. Alegia, oraindik ere moja gutxi batzuk bizi dira bertan, antolatzen diren zenbait ekintzetan parte hartzen dutenak, eta berezko apaizik ez duten arren, Etxebarriko parrokiako apaiza Ibarrekolandan bizi da eta proiektuan norbanako bezala parte hartzen du.

Horretaz gain, beste ezeren gainetik, Salvadorrek argi du Komunitatearen egitekoa "auzokideentzako gizarte lasaia, alai, solidarioa" bultzatzearekin dagoela lotuta. Iba-

rrekolandan eragiteko erari dagokionez, hiru proiektu edo alderditan oinarritzen da haien jarduna: Gauean, Beti Aurrera eta Auzoa Egiten.

Gehien behar dutenentzako aterpe

Aipatutako baloreei jarraiki, atzerritik etorritako pertsonen harrera bultzatzeko sortu duten proiektua euren jardunaren oinarrietako bat da: Gauean.

Orain dela zenbait urte beraien egoitzaren zati bat aterpe modura erabiltzea erabaki zuten. Era horretan, orduz geroztik, gauero atzerritik etorritako eta babesik gabe bizi diren pertsonen gaua pasatzeko lekua eskaintzen diete. Lo egiteko toki ez ezik, afaria ere eskaintzen diete proiektuan parte hartzen duten boluntarioen eskutik prestatua. Partaide kopuruari dagokionez, gau bakoitzeko bikote boluntario ezberdin bat dagoela kontuan hartuta, orotara profil anitzeko 60 pertsona inguruk parte hartzen dute harrera proiektu honetan. Gainera, Komunitatearen beste hainbat proiektuetan gertatzen den antzera, boluntarioetako asko ez dira fededunak, proiektuaren partaidetza anitzaren seinale. Proiektuaren partaideei dagokionez, ordea, gauero lau edo sei pertsonen pasatzen dute gaua egoitzan.



Ibarrekolandako Kristau Komunitatearen egoitza.

“Parte hartzen duten pertsonak hauek ikus-ezinezak dira nolabait gure gizartearen zati handi batentzat. Ekimen honen bitartez, aldiz, ikus dezakete ez direla arriskutsuak eta erabiltzaileak ikusgarri egiten dira nolabait esanda” azpimarratzen du Salvadorrek. Proiektua Argibiderekin batera eramaten dute aurrera; azken honen eskutik proiektuko erabiltzaileek formakuntza eta gizarteratze prozesuetan parte hartzen dute.

Esperientziaren balioa

Ibarrekolanda auzoan, Deustualdeko gainontzeko auzoetan zein beste edozein euskal herritan bezala, adineko ugarik egunerokotasunean bizi duten bakardadea gizartearen erronka handienetako bat da. Horregatik, Komunitatearen beste zutabeetako bat afera horri heltzea helburu duen ekimena da: Beti Aurrera.

Proiektuaren baitan, hainbat talde eta ekintza antolatzen dituzte. Esate baterako, Kooperarekin batera josteta tailer bat sortu dute, gizarte-bazterketa pairatzen duten edo horren arriskuan bizi diren hainbat pertsonen gizarteratzea xede duen eragilea, hain zuzen. Haren bitartez arropak konpontzen dituzte, geroago Caritasek gehien behar dutenen artean banatzen dituenak. Parte-hartzaileen artean 95 urtera arteko emakumeak daude.



50. urteurrenaren eukaristia.

Egitasmoak problematika sozial horri aurre egiteaz gain, parte hartzen duten pertsona helduen balio aprobetxatu eta azpimarratu nahi du. “Zu zaharra izan zaitezke, baina esperientzia daukazu argi eta garbi. Horregatik, beste norbaiti era batean edo bestea lagun diezaiokezu” nabarmendu du Salvadorrek proiektuaren balioaren harira.

Auzoa Egiten

Komunitateak Ibarrekolandako gizarte osora heltzea eta bertan elkartasuna bezalako balioak transmititzea helburu duenez, eragilearen egitekoa ez da esparru zehatz batzuetara mugatzen, komunitatea edo-



Etorkezunak antolatutako txango batean.



Kolpean Kolpe Fanfarria.

ta auzoa bezalako eduki zabalagoetara baizik. Alegia, “Auzoa Egiten” lelopean, ekimen ugari sortu dira era batera edo bestera Ibarrekolandako Kristau Komunitatearekin lotura dutenak, Etorbizuna Scout Taldea edo Kolpean Kolpe Fanfarria.

Etorbizuna Scout Taldea, esaterako, Komunitatearen heziketa prozesuaren tresna izango litzateke. Aurten 45 urte betetzen dituen eragile honek 8 urtetatik 18ra bitarteko umeekin lan egiten du, haietzako txangoak, kanpamenduak eta ekintza sozialak antolatuz. Gaur egun, 150 ume inguruk parte hartzen du Etorbizunak antolatutako ekintzetan, adinaren arabera bost taldetan sailkatzen direnak: Koskorrak (8-10 urte), Kas-kondoak (10-12), Oinarinak (12-14), Azkarrak (14-16) eta Trebeak (16-18). Komunitatearen beste adarretan bezala, Etorbizunaren egitekoa balore jakin batzuen transmisioan oinarritzen da,

besteak beste: gizartearentzako zerbitzuan eta naturarekiko harremanean. Horretaz gain, Ibarrekolandako Jai Batzordean ere parte hartzen dute talde modura.

Finean, Ibarrekolandako Kristau Komunitatea eragile berezia dugu Eliza munduan. Komunitateko kideak kontziente dira egun Elizak euskal gizartean bizirauteko dituen zailtasunez.



Josketa tailerra.



Gauean proiektuko partaideak.

Bada, aurrera eramaten duten bezalako ekintzek arazo horri aurre egiteko bitarteko bat izan daitekeela uste dute. Salvadorren hitzetan, “Kristau helduak gara, ez dugu apaizaren beharrik gure proiektua aurrera eramateko. Beraz, zergatik ez gure artean antolatu kristau proiektu bat sortuz, gizartean paper esanguratsu bat izaten jarraitzeko? Alegia, guk ez dugu hau fededun gehiago lortzeko egiten, guk partekatzen ditugun baloreak biziraun daitezen baizik”.



BADAKIGU, BAINA EZ DAKIGU



Testua: Maria Zarrabeitia Mendez, 2. mailako Arte Plastikoan, Irudiaren eta Diseinuaren batxilergoko ikaslea.
Argazkiak: Ibarrekolanda BHI

Ezusteko emaitzek ezusteko ekintzetan dute jatorria, eta badakigu; baina ez dakigu. Etengabeko ekoizpenak eta kontsumoak gidaturiko gure bizitza zoro hauetan, zaila da moldetik atera eta hausnartzea; zaila da gauzak kolokan jartzea. Zer gerta liteke, adibidez, pentsatu gabeko ikuspuntuetatik begiratzen hasi eta orain arteko ohiturak eta adierazpen formak apurtuko bagenitu? Zenbateraino behar dugu, benetan, iragarri berri duten eta munduaren beste aldetik etorriko litzatekeen pintzel berezi hori? Etxeko zaborrontzira botatzen diren elementu horiek ere balio lezakete pinturan busti eta artelan bat sortzeko, jasangarritasuna horrelako gauza txikietan ere aurkitzen baita.

Ibarrekolanda Institutuan horixe bera da egin duguna; elementuak berrerabili eta birziklatu margotzeko pintzel eta brotxak sortuz.

Gure inguruak eskaintzen dizkigun errekurtsoez baliatuz zer sor daitekeen, frogatzen baino ezin dezakegu deskubritu eta aukera ezin hobea da hauek sortzea. Adar zatitxoak, hostoak, edo sustraiak, kartoizko kutxak, soka edo kotoia, denak dira gure inguruko elementuak; orain arte beste erabilera bat izan zezaketela ez genekien elementuak. Begirada pixka bat moldatuz gero, edozein objektu artea sortzeko baliagarria delarenaz ohartuko gara. Baliteke, bat-batean, paperontzira bidean zabiltzala eskuan daramazun kartoizko kutxa horri mihise itxura hartzea. Gorde ezazu zereal kaxa, arrautza-ontzi eta kartulina zatia eta saia zaitetz ikasitakoa desikasiz berria den zerbait frogatzen.

Argi dago euskarri, pintzel eta lortutako emaitza hauek ez direla ikustera ohituta gauden horiek bezalakoak izango, baina artearen nolakotasunean dago etengabe-



Eskuz eginiko pintzelekin egindako lanak.



Euskarri birziklatuak eta elementu berrerabiliak.



Eskuz egindako pintzelak eta brotxak.

ko aldaketa hori; haren zainetatik ere badabil metamorfosi amaigabea. Gure bizimodu eta egoerara moldatzen den diziplina da artea; hala egin izan du historia osoan zehar eta egiten jarraituko du. Testuinguruen arabera zeharo aldatu da bere zentzu guztietan, eskuragarri izan ditugun material, gai eta tresneriak bilakaera handia izan baitu. Zergatik ez jorratu artean birziklapen artistikoa?

Agian artearen kontzeptua berridazteko momentua iritsi da. Agian jasangarritasunera salto egiteko garaia heldu zaigu. Jolas dezagun sortu dezakegunarekin, pintzeletatik hasi eta artelana bukatu arte. Saia gaitezen ulertzen munduaren etengabeko aldaketa honen parte garela, bai gu, bai ingurutzen gaituen guztia. Ireki ditzagun begiak eta has gaitezen adierazpide pentsaezinak frogatzen; ausartzen, lortzen. Edo behintzat saiatzen; zikitzen, sortzen.

Ezusteko emaitzek ezusteko ekintzetan dute jatorria, eta badakigu. Orain badakigu.



Ikasleak lanean eskuz eginiko pintzelekin.



LUCHANA BAPORETIXOA ELORRIETA PAREAN (1873)

XIX. mendeko beste irudi batekin gatoz oraingo honetan ere, Deustuko historiari irudi zaharren bidez begiratzeko beste ahalegin bat egitera. Karlistak dira ibaiertzetik tiroka ari direnak, Bilbo setiatu nahian. Lekua ezagutu duzue?

Testua: Hektor Ortega


Argazkia: T. Errazkin/Euskal Museoa

Duela bost urte (PREST! 199. zenbakian) hizpide hartu genituen 1873ko azken hilabeteetan, bigarren karlistadaren giroan, Bilboko setioa ezarri baino lehen, matxinoek Ibaizabaleko nabigazioa oztopatzeko egindako saiakerak. Lurretik blokeatuta eta tren zerbitzua etenda, Bilboren arnasaldia itsasadarretik gora eta behera ibiltzen ziren ontzietan heltzen zen: *Aspirante*, *Gaditano* eta *Ferrolano* gerra-baporeak, *Buena-ventura* goleta... Karlistek gabarrak hondoratu eta kateak trabesean ipini zituzten ibaian, aldearik alde, eta Sestao eta Deusturen arteko ibarretatik su egin zioten Bilbora igo eta Bilbotik jaitsi nahi izan zuen ontzi orori.

Orduko hartan, ostera, ez genuen aipatu ontzi guztietan txikiena, bitxiena eta, harrigarria, guretzat, gaur egungo deustuarrontzat, garrantzitsuena. Izan ere, karlistek Bilbo-Madril trenbidea eten zutenean, posta zerbitzurako

beste alternatiba bat bilatu zuten hiribilduko agintariak: bapore txiki bat hartu zuten, *Luchana* izenekoa, eta lehenengo ibaian behera eta gero itsasotik, Castro Urdialeserainoko hamasei miliak egiten jarri zuten, postaren garraioan. Zerbitzua 1873ko martxoan abiarazi zuten eta abenduaren 29 arte iraun zuen. Egun hartan Zorrotza eta Elorrieta artean ibaian trabesean jarritako kateaz, karlistek nabigazioa zeharo itxi zuten. Horrela eduki zuten hurrengo lau hilabeteetan.

Luchana bapore txiki-txikia zen eta, ibaian gora eta behera ibiltzen ziren guztiak bezala, burdinazko xaflez blindatu zuten, ibarretatik jausten zen tiro-jasatik babesteko asmoz. Eta, hala ere, komeriak. Adibidez, 1873ko abuztuan, Madril-eko prentsan irakurri dugunez, Ibaizabaletik nabigatzen zebilela, karlistek "*Luchana* baporetzua tirokatu zuten eta hamabost jaurtigai



ESPAGNE. — Engagements journaliers entre carlistes et républicains, sur la rivière de Bilbao, quand passe le vapeur postal *Luchana*. — (Ce, de M. N. F.)

barrualdera sartu ziren. Hiru gizon zauritu zituzten, bat nahiko larri”.

Abuztu eta abendu bitartean, tiroketak gero eta sarriagoak bilakatu ziren, tiro-jasak gero eta mardulagoak. Hain izan zen horrela ezen, 1873ko urte hondarrean, Luchana baporea zen Bilbo eta Portugalete arteko ibai zatia egin zezakeen ontzi bakarra. Karlitek lubakiak eta parapeoak atondu zituzten ibaiaren ezker-eskuin, eta bertatik su sarria egiten zieten ontziei.

1873ko grabatua

Luchana baporearen ibilera ausart haiek opari polita utzi digute gaur egungo deustuarrontzat: testu honekin batera argitaratzen dugun irudia. Grabatua *Le Monde Illustré* aldizkarian argitaratu zen 1873ko azaroaren 29an eta, ezker aldean ageri den sinadurari kasu eginez, Daniel Viergeri zor zaio marrazkia.


Frantses agerkariak jarritako argazki-oinak honela dio: “Karliten eta errepublikarren arteko eguneroko tiroketak, Bilboko itsasadarrean, *Luchana* posta-baporea pasatzean”. Ibaian hiru ontzi ikusten dira: ezkerrekoak gabarra bat ematen du; erdian frantses goleta bat ageri da, aingura botata, eta eskuinaldean *Luchana* baporetxo blindatua.

Irudiak oso ondo islatzen du ibaiertz bietatik karlistek zelan egiten zioten tiro korreo-ontzi txikiari. Goiko manda Ibaizabaleko ezker aldekoa da eta behekoa, berriz, eskuinaldea.

Eta zergatik da garrantzitsua gaur egun guretzat? Bada, ikusten dugun paisaia hori Elorrieta eta Zorrotzaurre arteko eremua delako. Ezker aldeko haitza Sepuruko Atxa da, alegia, Lutxanatik Enekurira zabaltzen den mendi bizkarra. Sasoi hartan, ibaia haitzaren oinari estu atxikita isurtzen zen, grabatuan ikusten den bezala. XX. mendearen hasieran kanalizazio lanak egin zituzten itsasadarrari alderdi horretan orain daukan ibilgua emateko.

Beraz, Elorrieta ibaiaz behealdean eta, uraz bestalde, Zorrotza, Barakaldo, Sestao, Portugalete eta Serantes mendia irudika ditzakegu.

Oso gutxi dira argazkigintza asmatu baino lehen gure herriaren berri ematen duten grabatu eta irudiak. Horietako bat, zalantza barik, hau, due- la 150 urte izandako gerra baten lekukotza.



Elorrieta, 1875 urte aldean.



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



Testua: Gaizka Suarez

Aurreko otsailaren 7an Bilbok Deustu anexionatu zueneko mendeurrenaren harira Gora Deustuk abiatuko duen dinamika herritarraren asanblada irekia burutu zen Bidarte Udaltegian. Deialdiak interesa piztu zuen, horren seinale ia 40 pertsona bertaratu izana. Pandemian sortu eta gero, Deustuko Elkartasun Sarearekin ereindako indar komunitarioak auzo elkarte forma hartu du azken urte hauetako prozesuaren ostean. Deustuar guztiontzat bizi baldintza duinak (osasungintza publikoa, zaintza, argindarra, espazio publikoak...) aldarrikatzeaz gain, Deustugintza izendatu duten lan ildoan martxan dute, Deustuko elkarte ezberdinen artean elkarlanean egitasmoak antolatzeko. Horren adibide urriaren 8ko Deustuko I. KM Bertikal arrakastatsua.

Oraingoan, berriz, aipatutako efemeridea baliatuz, “Gora Deustu Herria!” kanpaina martxan jarriko dute. Dinamikaren helburua bikoitza da. Alde batetik, memoria historikoa lantzeko tresna izan nahi du. Deustuk Udala zueneko herria nolakoa zen ezagutzera emateko eta hori galtzearen prozesua zein ondoren jasan-dako bilakaera aztertzeko. Norabide horretan, zenbait pertsonen ekimenez hainbat euskarri eta proiektu (liburu, erakusketa, hitzaldi, ibilbide antzeztua...) sortzeko asmoa dago. Bestetik, anexioak anexio 100 urte hauetan Deustuk bere identitate eta herri izaerari eutsi diola aldarrikatu nahi du. Oraindik ere Deustu egunero herri egitasmo ezberdinetatik auzolanean eraiki eta

bizitzaz betetzen duen komunitate indartsua dagoela erakutsi, alegia.

Martxoaren 17an, San José egunaren aurreko igandean, aurten 25 urte beteko dituen Deustuko Emakumezkoen Aurrekua dantzatzen den egunean, hots, Deustuko Jaietako egun berezienean, eman nahi diote hasiera dinamikari aurkezpen publiko baten bidez. Egun horretatik eta urriaren amaierara arte, “Gora Deustu Herria” lelopean, edozer antolatzeko prest dagoen elkarte zein norbanakoen eskura egongo den kanpaina izango da; guztiz irekia den lantalde eragile batek koordinatuko duena.

Azkenik, Urriaren 26a, larunbata, egun osoko jai potoloa egiteko egun gisa aukeratu dute, Deustu Bilbora anexionatzea derrigortzen zuen dekretua sinatu zen datatik oso gertu. Kirola, folklorea, kultura eta jai batuko dituen festa antolatzea da asmoa. Guztiok gure agendetan gorde beharrekoa zalantzarik gabe.

Pozik eta ilusioz atera zen jendea asanbladatik, eta ez da gutxiagorako. Altxor ederra dugu Deustun: mota eta kolore guztietako elkarteak eta borondatezko lanaren bidez herriari ekarpena egiten dioten ehunka pertsona. Indibidualismoa gora doala dirudien garaietan hemen elkarrekin, herritik eta herriarentzat, lan eginda gauza ikaragarriak egiteko gai den herri bat dagoela erakusteko aukera ederra dugu. Batu gaitezen denok auzolanera! Gora Deustu Herria!



DEUSTUN OSASUNGINTZAREN ALDE!

Testua: Gora Deustu

Gora Deustu auzo-elkarteak pandemiatik daramagu deustuarrei anbulatorioaren aurrean mobilizatzeko dei eginez, osasun publikoaren defentsan. Pandemia garaian egiazatu ahal izan genuen modu dramatikoan Osakidetzaren egoera larria. Egoera hori hainbat urtetan luzatu izanak eta luzaroan egindako kudeaketa politiko eskasak ondorio latzak izan ditu: murrizketak, plangintzarik eta inbertsiorik eza, kontzertazioak, pribatizazioak...

Pandemiak aitzakia gisa balio izan zuen murrizketa guztiak edo osasun-arreta duinik eza justifikatzeko, baina pandemia igaro ondoren, egiazta dezakegu egoera egiturazkoa dela. Orain, profesionalen falta da aitzakia berria. Profesionalen gabezia hori ez da bokazio faltagatik izango; izan ere, urtero ikusten dugu osasunari lotutako ikasketak direla sartzeko nota handiena eskatzen dutenak, eta milaka ikasle geratzen direla ikasketa horiek egiteko aukerarik gabe. Beraz, benetazko errealitatea da osasun publikoan ez dagoela beharko lukeen inbertsiorik.

Urteetan, euskal herritarrak harro sentitu gara Osakidetzaz, osasun-sistema onenetako bat izateagatik, eta egun, babesgabetasun-sentsazio handia dugu hura desegitearen aurrean.

Gure iritziz, osasun publikorako eskubideak unibertsala izan behar du, eta euskal erakundeek bermatu behar dute, guretzat ikaragarri lotuta dagoelako zaintza duinak izateko eskubidearekin. Horregatik, euskal zaintza sistema publiko-komunitarioaren aldeko Greba Feminista babestu genuen. Osasun eta zaintza-sistema integral, publiko eta kalitatezkoa

behar dugu, bizitzaren etapa guztiak bermatuko dituen.

Gora Deustu Deustuko EAG (Etengabeko Arreta Gunea) ixtea erabaki zutenean hasi zen mobilizatzen, bertako langile eta sindikatuarekin batera. Ondoren, Bilboko Auzo Elkartearen Federazioaren lehen mailako arretaren aldeko dinamikarekin bat egin genuen. Osakidetzako sindikatuen mobilizazioak ere babestu ditugu, baita osasun publikoaren aldeko herritarren plataformenak ere.

Egoera hau konpontzeko, beharrezkoa da herritarrak mobilizatzea. Hurrengoak dira gure iritziz urgentziaz hartu behar diren neurriak: lehen mailako arretarako eta espezialistentzako itxaronaldiak murriztea, gauza bera ebakuntza kirurgikoetan, aurrez aurreko arreta lehenestea, larrialdiak arintzea, EAG itxiak berreskuratzea, osasun mentala lehen mailako arretan, detekzio-programak indartzea, plantillak indartzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, pribatizatorako joera geldiaraztea...

Deustuar guztiak gonbidatzen ditugu gure osasun publikoaren alde borrokatzera. Hilero kontzentrazio bat egiten dugu Arangoitiko "Bihotzaran" auzokideen elkartearekin, Deustuko anbulatorioaren aurrean, eta, aldi berean, kontzentrazioak egiten dira Bilboko beste auzo batzuetako anbulatorioetan. Hurrengo hitzorduak, martxoaren 14an eta apirilaren 18an, ostegunetan, izango dira, 19:00etan, anbulatorioaren aurrean. Han egongo gara zuen zain. Osasun publikoa defenda dezagun!



berbetan

BEÑAT LARRINAGAREKIN

Arraunlari ohia eta Deustuko Unibertsitateko ikerlaria

“Beharrezkoa da emakumeen trainerua

Deusturekin eta arraunarekin zeharo lotuta dago Beñat Larrinagaren bizitza. Gaztetan Deustuko Arraun Elkarteetan sartu eta gero, orotara hamarkada eta erdi baino gehiagoko ibilbideari amaiera eman zion 2019an. Gaur egun, kirolarekiko sentitzen duen interesari jarraiki, emakumezkoen arrauna aztertzea xede duen doktoretza tesia egiten ari da Deustuko Unibertsitatean.



aztertzea, baita arautegia moldatzea ere”

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua ikasi ostean, egun emakumezkoen arraunean oinarritzen den doktoretza tesia egiten ari zara. Zein da, zehazki, zure ikerketaren helburua?

Lehenik eta behin, alde horretatik zer dagoen aztertzea edo aurrekariak identifikatzea. Gero, gizonzkoen kasuan egin diren ikerketekin alderatuta suma daitezkeen desberdintasunetan fokoa jarri. Alegia, distantzia aldetik emakumeen estropada gehienetan distantzia erdia egiten da gizonenekin alderatuta; ondorioz, alderdi asko daude ikertzeko: fisiologikoki berdin prestatu behar diren, alderdi antropometrikoei dagokienez diferentziarik ote dagoen... Era horretan, ikusita ez dagoela inongo artikuluko zientifikorik emakumeen traineruen arraunari buruz, ikerketa aldetik lehen aurrerapauso bat ematea izango litzateke asmoa.

Orain arte plazaratu dituzun artikuluetan, behin baino gehiagotan aipatu duzu arlo honetan oso gutxi ikertu izan dela. Zeintzuk izan dira, beraz, azterketa prozesu horretan zehar topatu dituzun zailtasunak? Aurretiazko oinarri zientifikorik ez dagoenez, alderaketak gizonekin egin behar izan ditugula, besteak beste. Horretaz gain, badaude ikerketak banku mugikorreko arraunaren inguruan, baina arautegiak ez dira berdinak; izan ere, traineruetan ez bezala, mota horretako arraunean

ontziak pisu ezberdinetako tripulazioetara moldatu daitezke. Beraz, kosta egin zait gauza batzuen justifikazioa bilatzea edo konparaketaren bat egitea.

Emakumezkoen traineru txapelketak 2008an hasi ziren. Gaur egun, ordea, hiru liga existitzen dira. Zer azpimarratuko zenuke orain arteko aurrerapauso bezala? Eta zer geratzen da egiteko?

Aurrerapausoei dagokienez, argi eta garbi partaidetzaren gorakada azpimarratuko nuke. Aipatu dituzun lizez gain, 2008tik ere Kontxako Estropadan lehiatzen dira. Pentsa zenbaterainokoa izan den gorakada hori non prestatzaile fisikook ez daukagun daturik lehiak sortutako beharrei aurre egiteko; horren ondorioz, mutilen paradigmaren artean kokatuta zegoen kirol batean sartu direla esan genezake. Edozelan ere, oraindik pauso asko falta dira eta, batez ere, erabiltzen diren datuak fidagarriak izatea, ez soilik entrenatzaileek erabiltzen dituztenak.

Artikuluetan, besteak beste, elikadurak arraunaren jardunean duen garrantziaz diharduzu. Zergatik?

Azken urteetan, bereziki, mutilen traineruetan adituak ohartu dira nabigazio onena pisu jakin batekin lortzen dela. Gehienek pisu hori 75 kilo inguruko batez bestekoan kokatzen dute. Horren eraginez, gizon arraunlarien artean geroz

“Distantzia aldetik emakumeen estropada gehienetan distantzia erdia egiten da gizonenekin alderatuta; ondorioz, alderdi asko daude ikertzeko”



berbetan

BEÑAT LARRINAGArekin

▷ ▷ SAKONEAN

“Talde askotan gaizki begiratzzen zaio pisuz kanpo dagoenari”

Azken urte hauetan ondorioztatu ahal izan duzunari erreparatuta, nola oroitzen dituzu gaur egun arraunean aritu zinen urteak?

Salatzzen ari garen puntuetako bat arraun taldeetan oso barneratutako ohitura da: talde kide guztien pisua eta gantz portzentaia denen aurrean erakustea; egoera hori entrenatzaileak eskatutako pisuan egoteko zailtasun gehiago dutenentzako bereziki gogorra izan daiteke. Talde askotan gaizki begiratzzen zaio pisuz kanpo dagoenari. Nire kasuan onartzen dut horrela jokatu izan dudala inoiz eta ikerketak lanketa bat egitera eraman nau, jarrera horiek ekiditeko.

Argitalpenak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Departamentuko beste kide batzuekin eraman dituzu aurrera. Nolako izan da elkarlan hori?

Alde horretatik, nire lankide eta beste ikerlari guztiek eman didaten laguntza nabarmendu nahi nuke. Alde batetik, AFD Salud ikerketa taldean barneratu naute Deustuko Unibertsitatean. Bestalde, ni ez naiz psikologoa, nutrizionista edota fisiologian aditua, horregatik da horren garrantzitsua beste ikerlari batzuekin elkarlanean aritzea, besteek duten jakintzatik edateko aukera ematen dizulako. Zure ikerketan beste perspektiba batzuk sartzen dituzunean, prozesu hori luzatu egiten da askotan, baina hartzen duen aberastasuna askoz ere altuagoa da.



eta ohikoagoa da pisua jaitea media horretara hurbiltzeko. Bada, lehen 90 kiloko arraunlari gehiago zeuden gaur egun baino. Txirrindulariaren gorputza izango litzateke gaur egungo gizonen arraunean lehiatzeko bilatzen den eredua. Kontua da, pisu jaitsiera hori lortzeko, sarri askotan jada pisu osasuntsu bat duten arraunlariak es-tutu egiten direla. Ildo horretatik, esan beharra dago presio hori ez datorrela soilik entrenatzailearen aldetik, baita beste taldekideen eta norberaren autoxijentziaren aldetik ere. Gauzak horrela, joera hori emakumeen arraunera iritsi da baita ere, nahiz eta oraindik ez dagoen frogatuta pisu jaitsiera horrek zenbateraino hobetzen duen errendimendua. Azken finean, emakumeen taldeak ez dira normalean lehen aipatu dudatan batez besteko pisu horretara heltzen. Bestalde, ohartu gara jokabide horiek nahasmen elikadura bezalako gaitzak eragin ditzaketela, sarri askotan arraunlariak ez dakitelako nola eraman aurrera pisu jaitsiera hori eta osasuntsuak ez diren neurriak hartzen dituzte helburua lortzeko.



Arraunak arrantzan du jatorria. Ehun urte baino gehiagoko ibilbidean, hamaika gauza aldatu dira arraunlarien prestakuntzari dagokionez. Arraun taldeen prestatzaile zaren heinean, punta puntako beste kirol batzuekin aldera daitekeela esango zenuke?

Arraunaren kasuan prestakuntzak elitekoak dira. Egia da, normalean, arraun klubetan egunean behin entrenatu ohi dela, astean sei aldiz. Beraz, beste zenbait kirolekin alderatuta, egia da eliteko prestaketa bat eramaten dela. Nahiz eta estatu edo nazioarte mailan oihartzun handirik ez duen kirol bat den, Euskal Herrian eta Galizian dirulaguntza ugari dituzte arraun elkarteek, beti ere beste kirol minoritario batzuekin alderatuta. Hau da, gaur edozein arraun taldek du prestatzaile fisiko bat, nutrizionista bat eta mediku bat.

Ikertzaile eta prestatzaile izateaz gain, arraunlaria ere izan zara urte askotan. Zer izan da prozesu honetan gehien harritu dizuna?

Elikadura nahasmenaren alderdi hori, beste elkarrizketa batzuetan aipatu dudan bezala, nire tesiko zuzendariaren aipamen baten ondorio izan zen. Niretzako horren inguruan ikertzea eta existitzen diren arazoak ikustea harrigarria izan da. Bestalde, arraunlarietako hitz egin genuenean konturatu ginen arraun munduan barneratuta zegoen zerbait zela. Hau da, guztiek zekiten zerbait izan arren, inork ez zuen orain arte aztertu. Elikadurarekin arazoak izan dituzten hainbat arraunlari etorri zaizkigu, bizi izan duten arazo hori aztertzen ari garela jakiteak poztu dituela helarazteko. Pertsonalki gehien harritzen nauena da arraunlariak kontziente zirela gauzak gaizki egiten ari zirela pisuaren jaitsierari dagokionez eta inork ez zuela ezer egiten. Alderdi positibotik begiratuta, ordea, ez nuen espero gure ikerketaren lehendabiziko emaitzek izan duten harrera. Oso positiboa izan da. Arraunlarietako oso ondo hartu zituzten, autokritika eginez. Askok gustatu zait hobetzeko nahi bat dagoela ikustek.

Artikuluetako baten konklusio modura, etorkizunerako beste ikerketa batzuetarako abiapuntu izan daitekeela aipatu duzu. Zeintzuk dira identifikatu ditzakezun balizko azterketarako norabideak?

Nire iritziz, beharrezkoa da emakumeen trainerua aztertzea, baita arautegia moldatzea ere. Azken finean, traineruek homologazio bat behar dute, ez dakit nola edo zer nolako aldaketekin baina uste dut emakumeen traineruak moldatu beharra dagoela. Alegia, ni ez naiz ontzigintza-ingeniaria, baina nire iritziz lantalde integral bat behar da prestatzaile fisikoekin, entrenatzaileekin, arraunlarietako ingeniarietako... beraietako adaptazioak dituen ontzi bat egiteko, azken batean. Ildo horretatik, lehen aipatu dudan Patxi Leon lesioen inguruan egiten ari den lana gogorarazi nahi nuke; Leonen arabera, momentu honetan arautegiak markatzen dituen neurriak ez dira aproposenak emakumeentzako. Zergatik? Entrenatzaileek arazo asko dituztelako traineruen eta arraunlarien neurriak ondo jartzeko.



“Ez dakit nola edo zer nolako aldaketekin baina uste dut emakumeen traineruak moldatu beharra dagoela”

JAI HERRIKOIAK

Dena prest 2024ko Deustuko Jaietarako

Otsailaren 4an bukatu ziren aurtengo Deustuko inauteriak. Geroztik Bilbon zein Deustualdeko beste zenbait auzo batzuetan ere moztorro garaiak ospatu dituzte, San Inazioen edo Erriberan, besteak beste. Bada, martxoan ere Deustuko kaleak jendez eta ilusioz gainezka izango dira, geroz eta gertuago baitaude Deustuko Jaiak. Joan den otsailaren 13an Deustuko Jai Batzordeak iragarri zuenez, 2024 jaiak martxoaren 15etik 24ra bitarte ospatuko dira. Urtero bezala, Deustuko zonalde ezberdinetan ekintza ugari ospatuko dira, hurrengo egunetan egitarauaren plazaratzearekin zehaztuko direnak. Horretaz gain, azken edizioetan egin den modura, txoznak Done Petri Plazan eta Euskalduna Zubiaren behealdean jarriko dituzte.

KULTURA

II. Deustuko Klown jaialdia

Otsailaren 2tik 28ra bitartean “Deustuko III. Klown Jaialdia” ospatu da Deustuko eta San Ignazio-Ibarrekolandako Udaltzategietan. Ekimenak pailazoaren artea adin guztietako pertsoneri hurbiltzea du helburu. Aurtengoan Euskal Herriko, Kataluniako, Granadako, Madrilgo eta Italiako konpainiek hartu dute parte. Euskaldunen artean, otsailaren 2an Ekain pailazoak “Slapstik” aurkeztu zuen, jolasa, umorea, katxondeoa eta zirkua uztartzen dituen emanaldia; otsailaren 23an, Potxin eta Patxin pailazoaren “Baserrian” ikuskizunaren txanda izan zen, mendi, baso eta zelaiek ematen dutenarekin ondo pasa daitekeela erakutsi nahi zuena, eta, azkenik, otsailaren 28an, Oihana Bartra, Ane Labaka eta Miren Artetxe bertsolariak “Klown bertso saioa” eskaini zuten, bertsoa eta klowna uztartuz.

ZINEMA

Bizkarsoro filmaren emanaldia

Joan den otsailaren 8an Berbaizu Euskara Elkarteak Bizkarsoro pelikulararen emanaldia antolatu zuen Bilboko Hizkuntza Eskolan. Josu Martinez zuzendariaren filma Iparraldeko herri batean kokatuta dago eta XX. mendean euskarak eta euskaldunek jasandako errepresioa du hizpide. Fikziozko istorioa izan arren, Martinezek benetako errealtate batez dihardu, herri-tarrak euskaraz hitz egite hutsagatik nola zigortzen zituzten kontatzen baitu. Luze-metraia bost laburmetraiez osatuta dago, horietako bakoitza istoria bat kontatzen duelarik. Antzezleen artean Bea Kurutxarri, Marxela Aneva-Fuchs, Bixente Indart, Lea Campistron eta Eneida Alfaro-Camus ageri dira. Interesa duenak oraindik ere aukera du filma ikusteko; izan ere, maiatzaren 10era arte Euskal herri ezberdinetan proiektatuko da.



OBRAK

Agirre Lehendakariako zuhaitz mozketaren lehen fasea amaitu dute

Joan den urteko azaroaren 28an, Bilboko Udalak Agirre Lehendakariaren Etorbidearen berritze lanak hasi zituen. Bada, otsailaren 6an moztu zuten zuhaitzen mozketaren lehen faseko azken zuhaitza. Udalak adierazi duenez, proiektuak etorbide honetako 128 aleren mozketaren suposatuta du orotara, beste espezie bateko 125 landatuta. Moztutako zuhaitz guztiak zumarrak dira eta Red Point motako astigarrarengatik ordezkatuko dira. Ekintza hau aurrera eramateko, biztanleentzat arriskutsuak direla adierazi du; izan ere, horietako batzuk erori egin baitziren azkenaldian. Aldizkari honetan argitaratutako beste elkarrizketa batean Silvia Rodrigo Stop Tala Deusto Plataformako kideak adierazi zuenez, Udalaren asmoa Etorbideko zuhaitzen mozketaren Pio X plazatik Elorrietaraino luzatzea da.





Urtea: 1995

Txema Luzuriaga

Euskalduna Zubiak

Otsailean eta martxoan, ia hogeita hamar urteren ondoren, hainbeste aldiz zeharkatua izan den Euskalduna zubiak oroituko dugu. Horrela, 1997ko apirilaren 18an, bi urte baino gehiagoko lanen ostean, "Euskalduna zubiak" inauguratu zen, Javier Manterola ingeniariak diseinatua, Deustukoaren azpitik, Abandoibarra (Jesusen Bihotza plaza) eta Botika Zahar deustuarra lotzen zituen. Bere funtsezko eginkizunetako bat Bilboko sarbideak askotan kolapsatzen zituen trafikoa arintzea zen; horrela, gaur egun komunikabidea egunero erabiltzen duten 25.000 ibilgailuak badirudi Deustuko zubiko eta auzo zaharreko trafikoa arintzea lortzen ari direla, neurri batean. Irudian, zubiaren zutabe nagusiak ikusten ditugu, baita gero Euskalduna Jauregiak hartu zuen espazio hutsa ere.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

YVES ROCHER FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



ATXURI TABERNA

Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

Iragar zaitez

Prest!

-en

tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com




**Alonso
Pertsianak**

Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Optica Avenida

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
SAN INAZIO 94 475 11 24



Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

1924tik Deustun

Eintoreria La Flor

Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua

Probatu **herrizki.eus**

ANDROID APP Google play Apple App Store

ERROZ JARRABAZIA GOBIERNO VASCO BFA

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@euskalnet.net

Matxintxu aek euskaltea

Matrikula zaitez!

Nailan

Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA

Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia

PADI
OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932

E.P.S. 425/97

Bitxidenda

Sabin Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS KM CERRAMIENTOS

Deitu eta Ikusi!!

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE

elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

2024ko Deustuko Jaiak
ate joka daude. Zein da
urtero ospatzen diren
ekintzetatik gehien
gustatzen zaizuna?



**Kerman
Deustu**

Deustuko jaietan egiten diren ekintzetatik bertsio gaua da nire gustokoena. Polita iruditzen zait lagunak gazteko oholtza gainean musikaz gozatzen ikustea.



**Idoia
Deustu**

Herri-bazkariaren eta kontzertuaren arteko tartea esango nuke, auzoko jende guztia biltzen baitu, eta ezinezkoa da sortzen den giro ona ez gozatzea... Eguzkia nahiz euria egin!!



**Lei
Bilbo**

Ezin ekintza bakarra aukeratu... Baina benetan estimatzen dudana dagoen kontzertu eskaintza zabala da: gaztetxean, plazan, tabernetan... Musika gozatzen dugunontzat, itzela!



**Asier
Castaños**

Nik gehien gozatzen dudana txosnetako giro aparta da. Eta extra moduan, baita erraldoiekin txupinazoan egotea ere.



**Nerea
San Inazio**

Inoiz galtzen ez dudana jarduera kontzertuak dira. Askok gozatzen dut zuzeneko musikaz eta gainera talde berriak ezagutzeko aukera ona da.



**Mikel
Deustu**

Kuadrillen eta konpartsen eskutik egunean zehar ospatutako herri bazkariak gain, baita gaztetxean eta txosnagunean eskiantzen diren kontzertuak ere.



>> EUSKARA

EUSKARA- ISLANDIERA, EUSKAL “BALEZALEEN” ONDAREA

Testua: Itxaso Sainz

Gure artean, kontu ezaguna da garai batean, XVII. mendearen bueltan, euskal arrantzaleek Islandia edota Ternuarako bidea hartu zutela baleak ehizatze aldera. Izan ere, harrapakin horrek etekin izugarria ekarri zien orduko euskaldunei; bestek beste, gantzen bidez olio eskuratzen zuten, bizarrak arropa egiteko nahiz haragia elikagai modura zerabiltzaten edota hezurak balioagarriak ziren eraikuntzarako. Dena den, ba al dugu berririk joan-etorri horietan bertokoen eta euskaldunon artean sortutako mintzairari buruz?

Jakin badakigu euskaldunek irla horietako bertakoekin harremanak izan zituztela. Hori bai, argi dago ezinezkoa zutela elkarri ulertzea herri bakoitza bere hizkuntzan mintzatzeko baitzen. Horrexegatik, urteak pasa ahala, harreman hori egonkortzearen ondorioz, elkar trukerako mintzaira sortu zen: *euskara-islandiera*.

Finean, euskara-islandieraren moduko mintzamoldeak (*pidgin* deritzonak) hizkuntzen arteko kontaktutik eratzen dira. Gehienbat, hizkuntza desberdineko hiztunen komunikazio beharretik jaiotzen dira eta kode sinpleak izan ohi dituzte. Hori horrela, noiz edo noiz, haurrak *pidgin* bat hitz egiten den ingurunean hazten badira, hizkera hori bere egiten dute eta jatorrizko hiztun bilakatzen dira. Hortik aurrera, *pidgina kleolera* bihur daiteke; hau da, hizkuntza baten funtzio guztiak beteko ditu.

Dena den, tamalez, baleen euskal abentura amaitu zen (hizkuntzalarion nahiz euskararen kaltetan, noski). Izan ere, Frantziak euskaldunei debekua ezarri zien eta handik aurrera, ez ziren ongietorriak izan

bere kolonietan. Beraz, euskaldunek komertzioa egiteari utzi behar izan zioten eta horrekin batera gure *pidgin* xarmagarria desagertu zen. Zorionez, gurean badugu euskara-islandieraren arrastorik. Hona hemen, egunerokotasunean zerabiltzaten zenbait esamolde:

Batzuoi harritzekoa gerta dakigukeen arren, euskal bale arrantzaleen garaia ez da inoiz ahanzturaren lekuko izan eta horren ordezkari nagusia “Ternua” mendiko arropa dugu. Markaren izendapenak ez ezik, logoak berak ere, zalantza izpirik gabe, gogorazten digu euskaldunen itsas norgehiagoka; haien ausardia zein adorea inspirazio modura baitarabiltzate euren burua deskribatzean.

Egia da Ternuak omendu nahi izan dituela euskal bale ehizaren orduko bizipenak, baina benetan Gipuzkoako garagardotegi batek “itsas hondotik” atera zuen gure altxor kuttuna: euskara-islandiera. Izan ere, *pidgin*az baliatu eta “For Jü Mala gissona” (zu gizona gaiztoa zara) izena jarri zion edariari. Baliteke Islandiako kostaldeetara iristen ziren euskal bale arrantzaleei deitzeko bertakoek erabiltzen zuten esamoldea izana. Are gehiago, garagardotegiaren esanetan, euskaldunen izaera alderatu nahi izan dute ekoizten duten artisau garagardoarekin; hau da, lehen begiratuan mesfidantza transmitituagatik ere, hobeto ezagututa, zintotasuna, ausardia zein balioekiko leialtasuna adierazten dute biek. Honek guztiak honakoa pentsatzera narama: Itzela da euskaldunok historian zehar euskara ahoan zer nolako trikimailuak baliatu ditugun bizirauteko, ezta? Hau bai altxorra gurea!

BILBO KALLING

Lander Belaustegui

Kaixo!
Ez zara
mozorratzen?

Bai

Zertaz?

Pazientzia handiko
gizonaz...

ANEXIOAREN MENDEURRENEAN, DEUSTUKO INAUTERIAK GALAZ

100 urte igaro dira aurten Errege Dekretu batek Deustu Bilbora anexionatu zuenetik, oraindik Deustuarrek barrenean daramaten arantza. Duela mende bat udalerrri izateari utzi bazion ere, oraindik bada batasuna Deustuko herria zen hartan, eta hori nahi izan dute ospatu aurtengo aratusteetan; herri sentimendua oraindik pil-pilean dagoela.

Testua: Xabier Badiola




Urtero Deustuko Jai Batzordeak eta Konpartsako kideek hartzen dute aratusteen egitaraua antolatzeko erantzukizuna. Hilak 2an, ostirala, goizean goiz hasi ziren jaietarako prestakuntzak Done Petri Plazan, txosnak hartu zuen forma pixkanaka eta baita eszenatokiak ere. “Buruarin” tailerrak eman zien hasiera jaiiei, Matxintxu euskaltegian, Darabilboren eskutik. Buruarinak utzi eta Buruhandien txanda izan zen 18:00ak inguruan, bertarutzen hasi zirenak berotzen hasi ziren, ondoren txosnetan egon zen poteoak erraztu zuen jarduna. Hasieran jende gutxi bazen ere, pixkanaka hasi zen

giroa sortzen plazan txupinazioa hurbildu ahala; antolatzaileek antzerki txiki bat eskaini zuten orduan, patinetan txupitoak banatu zituzten Deustuko anexoaren 100. urteurrena “ospatzeko”, edo Deustuko herriaren aldarria egiteko.

Independentziaren aldeko testuaren ostean topa egin zuten guztiek, eta hasi ziren iluntzeko ekintza eta jolasak. Deustuko kuadrilen txanda izan zen lehenik, “Hi Selfi” jolasarekin, non kuadrila guztien artean selfirik onenari emango zitzaion aurtengo kuadrilarteko saria irabazteko puntu bat; landetxe





batean asteburu pasa kide guztientzat. Pixkanaka berpizten ari den ohitura da Deustuko kuadrilen jolasena, duela zenbait urtetatik galduta zeramana, baina aurten berriz ere ari dira berreskuratzen. DJ HMNDK Etxerak girotu zuen gaua, izenak dion gisara plazan gelditzen zirenei ere etxera joateko ordua iritsi zitzaizen arte. Kitto ostirala, asteburu mugitua zuten oraindik aurrean.

Larunbatean Lantzeko inauteriak ekarri zituzten Deustura Ikastolako dantza taldeko haur eta irakasleek. Eguerdian herri-bazkari ikusgarria egin zen Done Petri Plazan, 600 pertsona baino gehiago bildu ziren eta ez zen jatekorik ez edatekorik falta; plazan bertan sukaldatu zuten lagun guztientzako menua. Mahaitik altxatu ezin, bingo musikatua izan zen bazkalostea girotzeko; euro banatan kartoia, marrubizko tekila botila zen saria helduentzat eta gozokiak haurrentzat; bi pertsonen arteko berdinketa izan zen, eta botila erdibana ez egitearren, jai batzordeko zira ere izan zuten opari.

Arratsaldean Orkestra Elektrotuna elektrotxaranga izan zen deustuarrak berriz ere dantzan jartzeko arduraduna, haien punk rock ganberroarekin.

Jendeak erruz gozatu zuen erritmo aldaketa eta giro aparta sortu zen plazan. Etxeko txikiek ere izan zuten haien dantza pausuak eta bestelako dohainak taula gainean jartzeko aukera “Hi haiz hi artista” leihaketan. Izugarritzko jende saldoa bildu zen Deustuko kaleetan, “Inauteriak dira eta herriak gaur gozatu behar du” diosku antolatzaileetako batak. Dantzak eta musikak jarraitu zuten 20:30ean, Bihotz Alai dantza taldearen eskutik, plazan egin zen erromerian, betiko lez dantzari asko bildu zituena plaza erdian, eta azkenik, gaua girotzeko arduradunak izan ziren Berriztu erromeria, 20:30etik aurrera.

Igandean kolorez bete ziren Deustuko kaleak desfile nagusiarekin. Kuadrila, elkarte, familia eta abarrek azken asteetan sortutako mozorro eta karrozak atera zituzten kalera. Sari banaketaren ostean pintxopotea izan zen igande eguerdia ondo hasteko, eta 14:00etan De Tomeitos taldearen kontzertua. Hilak 4, igandea Agate Deuna zenez, 19:00etan oles egiten amaitu zituzten Deustuko aratustek auzotar... Herritarrek! Gora Deustu herria! Gora Deustuko aratustek!





PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Brioche Torrada



IBAI GOIKOETXEA

@goikochef



Nola egin?

1. Laranja, limoi baten azala eta kanela esnearekin infusionatu 10-15 minutu. Su baxu baten.
2. Probatu esnea eta azukrea behar badu, bota.
3. Erreserbatu eta itxaron hoztu arte.
4. Brioche zati elegante bat moztu eta esnean buzti. Bueltak eman ondo bustita egon arte, bi aldeetatik.
5. Zartagin baten gurina berotu. Sua ez da egon behar oso altu. Gurin dezente bota.
6. Frijitu briocha bi aldeetatik.
7. Plater baten, esne infusionatu pixka bat bota eta gure briocha ipini.
8. Bukatu banillazko izozkiarekin.
9. Disfrutatatu eta errepikatu 4-5-6-7-8 urratsak.

OSAGIAK

Brioche
Esnea 1L
Laranja bat
Limoi bat
Kanela
Gurina
Banilla izozkia



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean



ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



DANEL LAUZURIKA ERKIAGA
Tsundokeroa

PARIS LA NUIT

Sentitzen dut, irakurle, baina azken aldian Beltza baino ez dut esku artean, eta ezin berterik iruzkindu. Generoarekiko uzkur eta aurreiritziz betea hasieran (argumentu errazak, detektibe-poliziak, ekintzak, hiltzailea zein den jakiteko intriga, odola), erraz eman diot buelta mozdadeari. Iparrorratz egokiak ditut horretarako: Jon Alonsoren *Beltzaren koloreak* eta Pierre Lemaitreren *Diccionario apasionado de la novela negra*. Hala, egunetik egunera argiago bereizten ditut Beltzaren tonuak.

Etiketa horrek ez du mugarik: nordikoa, Rural noirra, are Noir Euskandinaviarra ere. Horietan nekez aurkitu daiteke polizia protagonista nagusizat ez duen nobelarik. Beltza errealitate sozialaren argi-ilunak erakusteko tresna ere baden aldetik, baina, ezin da nobela poliziakoarekin berdindu. Onetik zioen gisan, nobela poliziala erreakzionarioa da: norbaitek egoera soziala nahasten du, polizia jokoan sartzen da eta gauzak bere tokian jartzen ditu, denen lasaigarri eta ordena burges txikiaren gozamenerako. Ez nahastu azpigeneroa osotasunarekin.

Noan harira. Tonino Benacquistaren *Los mordiscos del alba* zoragarria gomendatzen dizuet. 1980ko hamarkadaren bukaerako Parisen gau giroa erakusten du, Scorseseren *After Hours* film itzelaren zantzuak gogora ekarriz. Gazez *sarao* guztietan debalde jan eta edan ondoren, goizez gimnasio batean indarrak hartzen dituzten bizkarroiak ditu protagonista. Klase guztietako gautxorien festa da liburua, erditik aurrera banpiro-nobela bilakatua. Odola, ustelkeria, txibatoak, pobrezia, adikzioak, anbizioa, umorea, bizitzak baztertutakoen ironia... Eta ia poliziarik ez. Azken beltzean, Beltza.

Doinua: Haizeak bidali du



**ANE PÉREZ GONZÁLEZ ETA
IZADI ZUBEROGOITIA GUTIERREZ**
Elorri bertso-eskolako kidea

Bikoteari muxu
Eta opariak
Maitasuna sentitu
Muxu ta irriak
Oparitu berari
Arrosa gorriak
San Valentin eguna
Ospatuz herriak

Nire familia dago
Beti elkarrekin
Baina urtero legez
Gaude beti berdin
Beste batzuk nahiago
Dute San Valentin
Urte honetarako
Opari bi panpin



Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13



errigora.eus

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliiba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



eskatu eskaini euskaraz

Zuk aukeratzen duzu

Badakizu aukeratzen duzun hitzaren arabekoak izango direla zure harremanak?



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



EGIN ZAITEZ BABESLE!

Babestu Prest! aldizkaria:

bilbokoaldizkariak@gmail.com



Prest!